

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Iragarki honetan antzemandako akatsak zuzentzea: 2021/1316 iragarkia, 2021eko apirilaren 21eko ALHAOn (43. zenbakia) argitaratua, Laudioko Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren artean Eguneko Arretarako Landa Zentroaren zerbitzuaren eskumenak eskuordetzeko eta Eguneko Arretarako Landa Zentroaren garraio-zerbitzu egokituaren kudeaketa-gomendiorako Hitzarmena onesteari buruzkoa, Udalbatzaren Osoko Bilkurak 2021eko martxoaren 29an onartua

Akats material bat hauteman da, izan ere, 2021/1316 iragarkiaren transkripzioan paragrafo bat falta da (2021eko apirilaren 21eko ALHAOn argitaratu zen, 43. zenbakian). Hori dela eta, testu hau idatzi da:

Hau dioen lekuan:

“Alegaziorik, erreklamaziorik, iradokizunik edo ekarpenik aurkezten ez bada, une horretara arte behin-behinekoa izan den testua behin betikotzat joko da, Osoko Bilkuraren beste erabakirik behar izan gabe.”

Hau erantsita osatu beharko litzateke:

Azalpen-aldi hori amaitutakoan, Osoko Bilkurak edozein alegazio, erreklamazio, iradokizun edo ekarpen ebatziko du, hala badagokio, testuari behin betiko onespina emateko eta, ondoren, ALHAOn osorik argitaratzeko. Hitzarmena osorik argitaratzen denetik hogeita hamar egun baliadun igaro ostean jarriko da indarrean, Toki Araubidearen Oinarriari buruzko Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, eta behin betiko onetsitakoan Eguneko Arretarako Landa Zentroaren prestazioa arautzen duen araudia nahiz zerbitzuaren prezio publikoa ezartzeko eta arautzeko ordenantza, hitzarmena behin betiko onetsitatzeko joko da.

Laudio, 2021eko apirilaren 21a

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE